Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Nerea Ibarzabal Salegi

Markina-Xemein, Bizkaia (1994)



Aurkibidea

Biografia



Zumarragan jaioa, umea zela familia Markinara joan zen bizitzera. Ikastolan hasi zen bertsotan, eta gero Markinako bertso eskolan. Hainbat sari irabazi ditu eta ibilbide polita ari da egiten bertsolari moduan. Kazetaria da ikasketaz, eta hainbat lanetan jardun du: gidoilari, kazetari, iritzi-emaile, idazle... Txakur Gorria sormen kolektiboko kidea da. Bertsolaritzari buruz egin diogu elkarrizketa: emakumeak bertsolaritzan.

Zintak

MAR-119

- **Proiektua**: Gazte gara gazte
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2021-05-25
- **Iraupena**: 99 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Zumarragatik Markina-Xemeinera

- **Erref**: MAR-119/002
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:00:55. **Bukatu**: 00:02:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Etxebarriko Errotazarreta baserrian bizi izan zen familia Zumarragatik Markinara aldatu zenean. Familia handik beste baserri batera aldatu zen. Markinan ikasi zuen Bilbora joan zen arte kazetaritza egitera.

2. Bertsozaletasuna nola piztu zitzaon

- **Erref**: MAR-119/004
- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 00:02:40. **Bukatu**: 00:04:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Amaren familiatik datorkio Nereari bertsozaletasuna. Bertsolaritza aukeratu zuen ikastolaz kanpoko ekintza bezala. Juanjo Respaldiza izan zen bere irakaslea. Amarekin autoan puntuka ibiltzen zen.

3. Bertso-eskolan Markina Xemeinen

- **Erref**: MAR-119/005
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:04:54. **Bukatu**: 00:06:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
LH eta DBH-ko urteetan ibili zen Nerea ikastolan bertsolaritzako ekintzetan beste lagun batekin batera. Juanjo Respaldiza irakasleak txapelketara apuntatzen zien eta nahiz eta beraiek ez zuten joan nahi, beti irabazten zuten zerbait eta Markina-Xemeingo bertso-eskolan hasi ziren. Lea-Artibaiko bertsolari gazte asko biltzen ziren bertan.

4. Bertsozaletasunetik bertsolari izatera

- **Erref**: MAR-119/007
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:06:17. **Bukatu**: 00:07:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Hasieran bertsolaritza joko bezala bazuen ere, laster bihurtu zen lehia batean. Bertsolaritzarekiko pertzepzioa. nola aldatu zitzaion kontatzen du Nereak.

5. Lehiakortasuna bertsolaritzan

- **Erref**: MAR-119/009
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:08:07. **Bukatu**: 00:10:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Bertso-txapelketa ezberdinei buruz hitz egiten du Nereak: Osinalde, Abra, Xenpelar sariketa, Plazatik Gaztetxera... Bertsolaritzan beti lehia handia dago nahiz eta gero lagun handiak izan beraien artean

6. Bertsolaritza eta gizonaren irudiaren papera

- **Erref**: MAR-119/011
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:10:30. **Bukatu**: 00:12:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Bertsolaritzan, bertsolari-hegemoniko bezala gizona irudikatzen da eta horrek bakoitzak bertsotan egiteko moduak asko baldintzatzen duela kontatzen du Nereak.

7. Bizkaiko txapelketan beti gustura

- **Erref**: MAR-119/013
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:12:46. **Bukatu**: 00:14:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Bizkaiko txapelketan Nerea ez da inoiz arrotz sentitu, neska eta emakume asko dagoelako saioetan. Hala ere, askotan emakume bertsolarientzat leku arrotz bat bezala irudikatu daitezke txapelketak.

8. Bertsolaritzako emakume erreferenteak

- **Erref**: MAR-119/014
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:14:21. **Bukatu**: 00:17:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Hamabi urterekin bertsotan hasi zenean, Miren Amuriza, Jone Uria eta Arrate Illaro ziren Nerearen erreferente nagusiak. Miren Amurizarengan segurtasun handia ikusten zuen telebistan eta asko miresten du. Emakume bertsolariak oholtzan egoteak, bertsotan aritzeko beste modu bat planteatu zuen.

9. Emakumearen epaiketa bertsolaritzan

- **Erref**: MAR-119/016
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:17:59. **Bukatu**: 00:19:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Emakumeei gehiago zigortzen zaizkie hanka-sartzeak orokorrean eta bertsolaritzan ere berdina gertatzen da. Emakumeak txikitatik diskretuagoak izateko heziak izan dira. Bertso saio guztietan, gaizki egin izanaren duda eta errua sentitu izan du baina emakumeek ere epairik jaso gabe hanka-sartzeko eskubidea aldarrikatzen du.

10. Bertsolaritza eta emakumea: Autoexigentzia

- **Erref**: MAR-119/018
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:20:09. **Bukatu**: 00:22:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Autoexigentzia gehiago egoten da bertsolaritzan emakumeen artean gizonezkoen artean baino. Autoexigentzia minimo bat beharrezkoa da bertsolaritzan baina larregi izateak asko murrizten ditu bakoitzaren aukerak. Bere kasu pertsonala kontatzen du.

11. Bertsolaritza eta emakumea: Autozentsura

- **Erref**: MAR-119/020
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:22:05. **Bukatu**: 00:23:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Nereak kontatzen du, oholtza gainean ez dela jakiten publikoak nola ikusten zaituen eta horren arabera gauza batzuk kantatzen dituela edo ez.

12. Bertsolaritza eta emakumearen identitatea

- **Erref**: MAR-119/022
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:23:55. **Bukatu**: 00:25:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Bertsolaritza munduan neska zela ez konturatzeak lasaitasuna eman dio oholtzan. Nereak "Kontrako eztarritik" liburua osorik irakurri zuen arte ez zen konturatu bertsolaritzan emakume izateagatik zituen arazoak beste emakumeek ere bazituztela. Plazetan bere adinekoekin edo gizon helduagoekin bertsotan aritzearen ezberdintasuna.

13. Bertsolaritza eta generoen arteko botere-harremanak I

- **Erref**: MAR-119/023
- **Iraupena**: 0:02:36. **Hasi**: 00:25:26. **Bukatu**: 00:28:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Bertsoetako gai batzuekin deseroso sentitu da Nerea. Askotan, gizon heldu eta neska gazteen arteko gaiak sexuaren ingurukoak dira eta botere-harreman batean bilakatzen da. Nereak kontatzen du, publikoak neska gazteak gizon helduari kontra egitea eskatzen duela, askotan bere fisikoarekin sartuz. Berak ordea, gaia beste modu batean jorratzeko nahiak azaltzen ditu.

14. Bertsolaritza eta generoen arteko botere-harremanak II

- **Erref**: MAR-119/024
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:28:02. **Bukatu**: 00:29:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Gaur egun, generoaren ikuspegitik botere-harreman batean oinarriturako gaiak ez dira horrenbeste jorratzen bertsolaritzan. Nerearen ustetan, ligatzearen inguruko gaiak desoroso bihurtu dira eta berriz horri buruz eroso kantatzeko bideak bilatu behar dira.

15. Bertsolaritza eta generoen arteko botere-harremanak III

- **Erref**: MAR-119/026
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:30:31. **Bukatu**: 00:31:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Bertsolaritzan, ligatzeari buruzko gaietan nola jokatu botere-harremanak eraiki gabe bertsolari guztiak eroso sentitzeko.

16. Bertsolaritza: gizonaren ahotsa garratzitsuagoa

- **Erref**: MAR-119/028
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 00:32:48. **Bukatu**: 00:35:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Askotan, bertsotan gizonaren ahotsaren tinbrea, tonua, eta abar dela eta, garrantzi gehiago ematen zaio bere mezuari. Emakume batek berdina esango balu, publikoak ez duela berdin erantzuten kontatzen du Nereak.

17. Bertsolaritza eta Feminismoa

- **Erref**: MAR-119/030
- **Iraupena**: 0:02:53. **Hasi**: 00:36:37. **Bukatu**: 00:39:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Nerearen ustetan, orain dela urte batzuk arte emakume bertsolarien ibilbidea bakartia izan da eta ez dute hitz egin oholtzan gertatzen zenaz beste emakume batzuekin, autoestimuari kalte eginez. Feminismoaren hedapenarekin ordea, gauzak beste modu batera ikusten direla kontatzen du.

18. Bere burua gorrotatzea emakume-rola ondo ez betetzeagatik

- **Erref**: MAR-119/031
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:39:30. **Bukatu**: 00:40:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Neska bezala eskatu izan zaiona egin ez duelako edo "ondo" egin ez duenean epaitua izan denean, bere burua gorrotatzeraino heldu da Nerea. Adibide bat kontatzen du. Kanon estetikoei buruz hitz egiten du. Emakume bertsolari gehienak, oholtzan janzkera diskretua dute.

19. Bertsolaritza eta Emakumea: Janzkera diskretua

- **Erref**: MAR-119/033
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:41:02. **Bukatu**: 00:42:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Nereak kontatzen du oholtzara igotzeko zein arropa jantziko duen ondo pentsatzen duela: kolore neutroak erabiltzea, emakume formak ez markatzea... Emakumez bakarrik osatutako bertso-saioetara beste modu batean jantzita joaten dela kontatzen du, dotore joaten dela, diskrezioari ardurarik eman gabe.

20. Bertsolaritza eta Emakumea: Saioa "salbatzea"

- **Erref**: MAR-119/035
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:43:53. **Bukatu**: 00:45:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Bertsolari bakoitzak bere estrategiak ditu oholtza gainean eroso sentitzeko baina emakumeen artean diskrezioa izaten da nagusia. Askotan "saioa salbatzea" izaten da Nerearen helburua, arriskurik hartu gabe eta horrek berarengan sortzen dituen kontraesanei buruz hitz egiten du.

21. Bertsolaritza eta Emakumea: Umorea gizonezkoena da

- **Erref**: MAR-119/037
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:45:44. **Bukatu**: 00:47:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Bertsolariak umore-kontuetan estereotipatuak egon daitezke. Bertsolariak umorea erabili badu eta horrek saio ona egiteko balio izan badio, hurrengoetan ere hori bilatzen da. Kontrakoa ere pasatzen da. Normalean gainera, gizonezkoak lotzen dira umorearekin edo nahiz eta biek berdina esan, gizonezkoena da grazia egiten duena

22. Bertsolaritza eta emakumeen arteko lehia

- **Erref**: MAR-119/039
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:48:43. **Bukatu**: 00:51:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Nereak, emakumeen arteko lehiakortasuna nola ikusten duen azaltzen du: gizonezkoen taldean sartzeko onarpena, beste emakume bat sartzeak eragiten duen presio eta arriskua, konpetentzia... Honen aurrean, Nerearentzat oso garrantzitsua da emakume bertsolariak esperientziak partekatzea.

23. Bertsolaritza eta LGTBIQ+

- **Erref**: MAR-119/043
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:54:40. **Bukatu**: 00:56:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » LGTBIQ+

Laburpena:
Bertsolaritzaren eta bertsolarien aniztasunari buruz hitz egiten du. Gizon

bertsolarien artean oso aniztun gutxi dago. Ez dira gizon bertsolari homosexualak edo trans-ak ikusten. Bertsolaritza beste gai batzuekin konparatuz ez du hain anitza ikusten Nereak.

24. Bertsolaritza, pandemia eta emakumearen irudia

- **Erref**: MAR-119/046
- **Iraupena**: 0:02:01. **Hasi**: 00:57:36. **Bukatu**: 00:59:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Koronabirusa

Laburpena:
Koronabirusa hasi zenetik ez dira bertsotan plazetan ibili. Buelta nola izango den eta gizon helduagoekin harremana nolakoa izango den ere kezkatzen du Nereak. Pandemia garaian egin diren saioetan emakumeen presentzia handiagoa izan da eta hau emakumeak "lasaitasunarekin" erlazionatuta ote dagoenaren hausnarketa egiten du.

25. Gizonezko bertsolarien aitapontekotza jarrerak

- **Erref**: MAR-119/048
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 01:01:10. **Bukatu**: 01:01:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Gizonezko bertsolari heldu asko paternalistak ("aitakeria", "aitapontekotza") izaten dira emakume bertsolariekin. Adibideak ematen ditu.

26. Bertsolaritza eta emakumea: Ez-merezimendua

- **Erref**: MAR-119/049
- **Iraupena**: 0:02:39. **Hasi**: 01:01:55. **Bukatu**: 01:04:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Neska edo emakume izateagatik merezitakoa baino arreta gehiago jaso izanaren sentsazioa duten emakume bertsolariak daude. Nerearentzat, autoestimuarekin oso lotuta dago. Adibide batzuk jartzen ditu.

27. Bertsolaritza eta Emakumeak: Gaiak

- **Erref**: MAR-119/050
- **Iraupena**: 0:02:46. **Hasi**: 01:04:34. **Bukatu**: 01:07:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Bertsolaritzan beti gai unibertsal batzuk egon dira eta gaur egun hori aldatzen badoa ere, bertso-txapelketa baten aurrean Nerea dokumentatu egiten da zenbait gaitan: kirolak, ehiza, perretxikoak... Gai unibertsaltzat hartu dira bertsolaritzan gizonak zeudelako. Gaur egun ahalegina egiten da gaiak bestelakoak izateko edo beste ikusputu batetik jorratzeko baina gizon bertsolari askoren artean aurpegi txarrak ikusten dira.

28. Ahalduntze Bertso Eskola

- **Erref**: MAR-119/052
- **Iraupena**: 0:03:09. **Hasi**: 01:07:50. **Bukatu**: 01:10:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Emakumeak ahalduntzeko bertso eskola nola garatu zen. Nereak bere esperientzia kontatzen du.

29. "Ez da kasualitatea" bertso saioa I

- **Erref**: MAR-119/053
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 01:10:59. **Bukatu**: 01:12:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Uxue Alberdik proposatutako ideia batetik sortutako proiektua izan zen eta feminismotik eta Ahalduntze Bertso Eskolako ideia asko bertan jaso ziren. Nerearentzat, egin dituen saio onenak bertan egin ditu, beti eroso joan delako, ondo pasatzeko jarrerarekin. Feminismoa benetan bertsolaritzan praktikan jartzeko egitasmoetako bat izan da.

30. "Ez da kasualitatea" bertso saioa II

- **Erref**: MAR-119/054
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 01:12:55. **Bukatu**: 01:14:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
"Ez da kasualitatea" bertso saioa espazio-libre bezalako bat da. Gainera, jai-

jartzaileen babesa nabaritzen da eta arriskuan jartzen dituzte bertsolariak, beraiengan sinesten dutelako.

31. "Txakur Gorria" sormen-kolektiboa

- **Erref**: MAR-119/056
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 01:14:51. **Bukatu**: 01:16:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
"Txakur Gorria" , Malen Amenabar, Ane Labakak, Mariñe Arbeok eta Nerea Ibarzabalek unibertsitate-garaian sortutako sormen-kolektibo bat da. Ilustrazioak eta hitzak elkartzen dituzte eta lanak autoeditatzen hasi baziren ere, pixkanaka elkarte txiki bat sortu zuten eta gaur egun hortaz bizi dira. Zer egiten duten azaltzen du. Feminismotik ere landu dute proiektua.

32. Kazetari-lanak: egunkariak, irratia...

- **Erref**: MAR-119/058
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 01:16:39. **Bukatu**: 01:17:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:
Nereak kazetaritza ikasi zuen eta horren inguruan egin dituen lanez hitz egiten du. Irratian ere aritzen da, nahiz eta idaztea da gehien gustatzen zaiona.

Transkripzioa
Bai, ba, hitzari lotuta pixkat danetik, eta dana, forma danak gustatzen jatez, e. Iritzi-zutabik idazten hasi nintzen Bizkaiko Hitzan eta... akordetan naz "Ai ama...", baiña fondo-fondun esaten neban, "Bua, beti nahi izen dot /izeot/", ordun, kriston pozik hartu neban. Eta hor ego nintzen urte batzuk, gero "Gaur zortzi"n be bai, bueno, danetik... oin Argia, oin Berrian eitten dou "Txakur gorria"tik dala artikulua baiña ilustrazio handi eta polit batekin. Eta irratian be bai oso gustora, Xabier Amuriza eta Karlos Cidekin; eee... oso ondo pasetan dogu /pasetagu/. Uste dot /ustot gustetan jatela berbie eta berbian bidez heltzen gazen lekuek eta... eta igual gehixen idaztie esango neuke. Beittu, hau dana bertsolaritziai buruzko ordubeteko txapa bat eta gero, esango dotsut /esangotzut/ idaztie gustetan jatela. Baiña, bueno, hor be, ba, banabil bidetxu bat eitten eta pozik.

33. Euskalkiz aldatzeko gaitasuna

- **Erref**: MAR-119/060
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 01:18:09. **Bukatu**: 01:19:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:
Zumarraga eta Markina artean bizi izan denez, euskalki ezberdinetan hitz egiteko gai da Nerea. Xabier Amurizari esker, irratian euskara batuan egiten hasi zen.

34. Bertsolaritza eta Emakumea: "Orainmenean" I

- **Erref**: MAR-119/062
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 01:22:05. **Bukatu**: 01:25:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:
Denboran zehar emakume bertsolariak egon diren arren, isilduak izan dira eta gizonezkoek hartu izan dute nagusitasuna. Nereak kontatzen du, askotan gizonezko bertsolarien argazkiak ez dira errealak (Bilintx, Xenpelar...) baina beti irudikatu izan ditugula. "Txakur Gorria"-tik argitaratu duten "Orainmenean" liburuxkan, emakume bertsolarien informazioa emateaz gain, beraien argazkia ere sortzen saiatu dira. Bertso-saio berezi batzuk prestatu dituzte eta emakume bertsolariek, liburuan dauden beste emakumeei buruz kantatuko dute.

35. Profasadorak XIV. mendean

- **Erref**: MAR-119/064
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 01:26:19. **Bukatu**: 01:27:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Profasadorak zer ziren azaltzen du: XIV. mendean kantatu eta inprobisatzen zuten emakumeak ziren. Debekatuak izan ziren, bazter-nahasletzat hartu zituztelako.

36. "Orainmenean" liburuko ermakume bertsolariak I

- **Erref**: MAR-119/066
- **Iraupena**: 0:03:18. **Hasi**: 01:28:09. **Bukatu**: 01:31:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:
Nereak, "Orainmenean" liburua erakusten du eta azaltzen diren emakume

bertsolari batzuei buruz hitz egiten du: lore-jokoen txapeldun izan eta isilduak izan ziren Maria Luisa Erdozio, Mariana Argain, Mariana Etxegarai; Leoni Etxebarren, Xalbadorren emaztea izan zena eta senarrari buruz idatzi zuena; Luzia Goñi...

37. Bertsolaritza eta Emakumeak: Pello Errotaren familia

- **Erref**: MAR-119/068
- **Iraupena**: 0:00:44. **Hasi**: 01:32:00. **Bukatu**: 01:32:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Pello Errota bertsolariak, bertsotan ibiltzen ziren bi alaba eta iloba bat zituen. Sagardotegietan gizonezkoei bertsotan erantzuten aritzen zirela kontatzen du Nereak.

38. Bertsolaritza eta Emakumeak: Joxepa Antoni Xenpelar

- **Erref**: MAR-119/070
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 01:33:06. **Bukatu**: 01:34:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Xenpelarren familian ere emakume bertsolariak zeudela kontatzen du Nereak. Joxepa Antoni Xenpelar, Xenpelarren iloba zen. Emakume ausarta eta ideologikoa.

39. Maurizia Aldeiturriaga

- **Erref**: MAR-119/071
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 01:34:06. **Bukatu**: 01:34:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Maurizia Aldeiturriaga eta bere "Aupa Maurizia!" lemari buruz hitz egiten du Nereak.

40. "Orainmenean" liburuko ermakume bertsolariak I

- **Erref**: MAR-119/072
- **Iraupena**: 0:03:39. **Hasi**: 01:34:53. **Bukatu**: 01:38:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Bertso-txapelketa modernoetako emakume bertsolariei buruz hitz egiten du: Cristina Mardaras, Arantzazu Loidi, Roxi Lazkano... Liburuarekin jaso izan nahi dena kontatzen du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-06

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com